

Alcalde - Alkatea

D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkate Ordeak

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna.
D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.
Dña. Ana Telleria Echeverria andrea.
D. Arcadio Benitez Dávila jauna.
D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.
D. Jon Iraola Iriondo jauna.

Concejales - Zinegotziak

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea.
Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea.
Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea.
Dña. Igone Lamarain Cobo andrea.
D. Josu Cristobal Churruca jauna.
Dña. Leire Abanzabalegui Aranguren andrea.
D. Gorka Errasti Bernedo jauna.
Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea.
Dña. Eva Juez Garmendia andrea.
D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna.
Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea.
D. Josu Mendicute Rodríguez jauna.
Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea.
Dña. Maria Jesús Aguirre Unceta Andrea.

Secretaria General - Idazkari Orokorra

Dña. Arantzazu Echániz Petralanda andrea.

Eibarko hirian, bi mila eta hamazazpiko abenduaren hamabian, goizeko bederatziak eta erdiak izanik, Udal Batzarra bildu zen bilera berezian, Udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

Alkate jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren atal bakarra irakurri da.

Ezeren aurretik, idazkari andreak dio Leire Abanzabalegi Aranguren andreak azaroaren 7ko idatziz hauxe adierazi zuela: amatasun-baimena jasotzen zuenean, bere bozka Gorka Errasti Bernedo zinegotziaren esku lagatzen zuela, eta abenduaren 6az geroztik dagoenea amatasun-baimenarekin, Errasti jaunak duela Abanzabalegui andrearen bozka eskuordetua.

1. ATALA

“Julian Etxeberria eta Jardiñeta kaleen arteko igogailu publikoaren projektua” egiteko derrigorrean hartu behar diren ondasunen eta eskubiden zerrenda behin betiko onartzea.

Irizpen hau irakurri da:

“Tokiko Gobernu Batzarrak, 2017ko urria-

En la Ciudad de Eibar, a doce de diciembre de dos mil diecisiete y siendo las nueve horas treinta minutos, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as.

El Sr. Alcalde declara abierta la sesión y se procede a la lectura del primer punto del Orden del Día.

Como cuestión previa afirma la Secretaría que Doña Leire Abanzabalegui indicaba por escrito de 7 de noviembre que una vez que estuviera con permiso maternal delegaría el voto en Don Gorka Errasti Bernedo y que dado que desde el 6 de diciembre está con permiso maternal, el señor Errasti tendrá el voto delegado por la señora Abanzabalegui.

PUNTO 1º

Aprobación definitiva de la relación de bienes y derechos de ocupación necesaria para la ejecución del “Proyecto de ejecución de ascensor público entre las calles Julian Etxeberria y Jardiñeta”

Se da lectura al siguiente dictamen:

“La Junta de Gobierno Local, en sesión

ren 27an egindako bilkuran, "Julian Etxeberria-Jardiñeta kaleen arteko igogailu publikoaren proiektua" onartzea erabaki zuen eta, aldi berean, hasierako onarpena eman zion proiektua gauzatzeko nahitaez hartu edo okupatu behar diren ondasunen eta eskubideen zerrendari, Nahitaezko Desjabetze Legearen 17. artikuluak eta lege horren Araudiko 16.ak ezarritakoak aplikatuta.

Aplikatu behar diren lege-xedapenek ezarritakoaren arabera, expedienteak bete du jendaurreko informazioaren izapidea. Horretarako, azaroaren 7ko 212. zenbakiko *Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean* iragarkia argitaratu zen; baita 2017ko azaroaren 2ko *Berria* eta *El Correo* egunkarietan ere. Aldi berean, jakinarazpen pertsonala bidali zitzaien titular interesdun guztiei.

Jendaurreko informazioari dagokion izapidean, expedientea azterzeko eta bidezkoak irizten ziren alegazioak egiteko emandako epearen barruan, alegazio-idatzi bat aurkeztu da.

Maria Francisca Guisasola Aranceta andreak, INMOBILIARIA INVERSORA URKO SLren izenean, abenduaren 1eko data duen idatzi bat aurkeztu zuen, ondasunen zerrenda zuzena dela adieraziz eta, aldi berean, garajeetako errentarien zerrenda

celebrada en fecha 27 de octubre de 2017, acordó aprobar el "Proyecto de ejecución de ascensor público entre las calles Julian Etxeberria y Jardiñeta" y aprobar inicialmente, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 17 de la Ley de Expropiación Forzosa y 16 de su Reglamento, la relación de bienes y derechos de ocupación necesaria para la ejecución del proyecto.

De acuerdo con lo establecido en las disposiciones legales de aplicación, el expediente ha sido sometido al trámite de información pública, a cuyo fin se insertaron anuncios en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 212 de 7 de noviembre de 2017, y en prensa en los periódicos Berria y El Correo de fecha 2 de noviembre de 2017. Simultáneamente, se han practicado notificaciones personales a los titulares interesados.

En el trámite de información pública, en el plazo concedido al efecto para examinar el expediente y deducir las alegaciones que se estimasen pertinentes, se ha presentado un escrito de alegaciones.

Doña María Francisca Guisasola Aranceta, en representación de INMOBILIARIA INVERSORA URKO, S.L. presenta un escrito con fecha 1 de diciembre en el que indica que la relación de bienes es correcta y presenta un listado de arren-

eta errentari horiekin sinatutako kontratuak erantsiz.

Espedientea izapidezean interesduntzat jo behar dira desjabetzearen eraginpean dauden errentariak, 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetze Legearen 4. artikuluak ezarri bezala:

Hala eskatzen dutenean, beren izaera behar bezala egiaztatuta, desjabetu daitekeen horretan eskubide errealkak eta interes ekonomiko zuzenak dauzkaten titularrekin ere behar diren eginbideak egingo dira, eta baita errentariekin ere, landahigiezinak edo hiri-higiezinak direnean. Azken kasu horretan, errentari bakoitzari dagokion intzidentzia-espedientea egingo da legokiokeen kalte-ordaina finkatu ahal izateko.

Halaber, elkarrizketa batzuk izaten ari dira finka horren inguruan akordio batera heldu ahal izateko, eta, akordio batera iritsiz gero, espedientetik kanpo utziko litzateke.

Beraz, Udal Osoko bilkurak behin betiko onarpena eman diezaioke ondasun eta eskubideen zerrendari. Izan ere, Nahitaezko Desjabetze Araudiaren 3.4. artikuluak zehazten duen bezala, desjabetzailea Udala denean, Udal Osoko bilkurari edo Udalbatzarrari dagokio auzibidetik edo administrazio-bidetik errekurtsoa sar daki-keen desjabetze-alorreko erabakiak hartzea.

datarios de los distintos garajes, así como los contratos suscritos con los mismos.

En la tramitación del expediente deberá considerarse como interesados a los arrendatarios afectados, tal y como establece el artículo 4 de la Ley de Expropiación Forzosa de 16 de diciembre de 1954:

Siempre que lo soliciten, acreditando su condición debidamente, se entenderán también las diligencias con los titulares de derechos reales e intereses económicos directos sobre la cosa expropiable, así como con los arrendatarios cuando se trate de inmuebles rústicos o urbanos. En este último caso se iniciará para cada uno de los arrendatarios el respectivo expediente incidental para fijar la indemnización que pueda corresponderle.

No obstante se mantienen conversaciones para un acuerdo respecto a esta finca y si se lograse podría excluirse la misma del expediente.

En consecuencia, se puede proceder a la aprobación definitiva de la relación de los bienes y derechos por el Ayuntamiento Pleno (el art. 3.4 del Reglamento de Expropiación Forzosa determina que cuando expropie el Ayuntamiento, corresponde al Ayuntamiento en Pleno adoptar los acuerdos en materia de expropiación que tengan carácter de recuperables en vía administrativa o contencio-

sa.)

Zerrenda horren behin betiko onarpenaren erabakia *Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean* eta Iurrealde honetan hedapen handiena duen egunkarietako batean eman behar da argitara. Horrez gain, desjabetze-prozeduran interesduntzat agertzen diren pertsona guztiei banan-banan bidali behar zaie jakinarazpena.

Espedienteari Hiraintza eta Obra Saileko lege-aholkulariaren txostena erantsita; expediente hau izapidezean indarrean dagoen araudiko izapideak bete egin direla kontuan hartuta; Hiraintza eta Obra Lan Batzordeak, Alberto Albistegui, Ana Telleria, Maria Isabel Larrauri eta Jon Iraola jaun-andreen aldeko botoekin, eta Leire Abanzabalegi, Gorka Errasti, Josu Mendicute, Eva Juez eta M^a Jesus Aguirre jaun-andreen abstentzioekin, Udal Osoko bilkurari erabaki hau hartzeko proposamena egiten dio:

LEHENA.- BEHIN BETIKO ONESPENA
EMATEA “Julian Etxeberria eta Jardiñeta kaleen arteko igogailu publikoaren proiectua” egiteko derrigorrean hartu behar diren ondasunen eta eskubideen zerrendari.

JULIAN ETXEBERRIA ETA JARDIÑETA
KALEEN ARTEKO IGOGAILU PUBLIKO-

El acuerdo de aprobación definitiva de dicha relación habrá de publicarse en el *Boletín Oficial de Gipuzkoa* y en uno de los diarios de mayor circulación de la provincia. Además habrá de notificarse individualmente a cuantas personas aparezcan como interesadas en el procedimiento expropiatorio.

Incorporado al expediente el informe del Asesor Jurídico, y considerando que en la tramitación de este expediente se han observado los trámites que se relacionan en la normativa vigente, la Comisión de Trabajo de Urbanismo y Obras, con los votos a favor de D. Alberto Albistegui, D^a Ana Telleria, D^a Maria Isabel Larrauri y D. Jon Iraola, y las abstenciones de D^a Leire Abanzabalegui, D. Gorka Errasti, D. Josu Mendicute , D^a Eva Juez y D^a M^a Jesús Aguirre, propone al Pleno Municipal acuerde:

PRIMERO: APROBAR con carácter definitivo la relación de bienes y derechos de ocupación necesaria para la ejecución de las obras del “Proyecto de ejecución de ascensor público entre las calles Julian Etxeberria y Jardiñeta” que se incluyen en la relación adjunta.

RELACIÓN DE BIENES Y DERECHOS
DE NECESARIA OCUPACIÓN PARA LA

AREN PROIEKTUA EGITEKO NAHITA-
EZ HARTU BEHAR DIREN ONDASUNEN
ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA.

- 1 zenbakiko PARTZELA.

Julian Etxeberria kalea 1A

Titularasuna: COMPAÑÍA TELEFÓNICA
NACIONAL DE ESPAÑA SA

Katastroan duen izaera: hiri-finka:

Katastroaren erreferentzia: 4381535

Erregistroaren erreferentzia: Eibarko
16342. finka.

Deskripzioa: Hirurehun eta hirurogeita sei
metro eta hirurogeita hamabi dezimetro
karratuko azalera hartzen duen lur-
partzela. Lur-partzela horren barruan, Ei-
barko Julian Etxeberria kalean, eraikin bat
dago eraikita, zenbaki gabe. Bost solairu
ditu eta solairu bakoitzak hirurehun eta
hogeita hamahiru metro eta dezimetro ka-
rratu bateko azalera du.

Okupazioa: Zortasun hau ezartzen da: le-
henengo solairuan eta bigarren solairuan
leiho bana ezabatzea eta beheko solairu-
an ate bat. Leihoak eta atea eraikinaren
ekialdeko fatxadan daude.

- 2 zenbakiko PARTZELA.

Julian Etxeberria kalea 3

Titularasuna: INMOBILIARIA INVERSO-
RA URKO SL

Errentariak:

Maialen Badiola Aguirregomezcorta

EJECUCIÓN DEL PROYECTO DE
EJECUCIÓN DE ASCENSOR PÚBLICO
ENTRE LAS CALLES JULIAN
ETXEBERRIA Y JARDÍNETA.

- PARCELA Nº 1

Julian Etxeberria 1A

Titularidad: COMPAÑÍA TELEFONICA
NACIONAL DE ESPAÑA, S.A.

Naturaleza catastral: Finca urbana

Referencia catastral: 4381535

Referencia registral: finca 16342 de Ei-
bar.

Descripción: Parcela de terreno que
ocupa una superficie de trescientos se-
senta y dos metros setenta y dos decí-
metros cuadrados, dentro del cual se ha-
lla construido un edificio ubicado en la
calle Julian Etxeberria sin número de la
villa de Eibar. Consta de cinco plantas y
ocupa una superficie de solar en planta
de trescientos treinta y tres metros y un
decímetro cuadrados

Ocupación: Imposición de servidumbre
de anulación de dos ventanas en planta
primera y planta segunda, y una puerta
en planta baja, todas ellas en la fachada
este del edificio.

- PARCELA Nº 2

Julian Etxeberria 3

Titularidad: INMOBILIARIA INVERSORA
URKO, S.L.

Arrendatarios:

Maialen Badiola Aguirregomezcorta

Imgocair SL
Takashi Inui
Estampaciones Metálicas EGÜI SAU
Katastroan duen izaera: hiri-finka:
Katastroaren erreferentzia: 4381129
Erregistroaren erreferentzia:
Deskripzioa: zortzi plazatako garajea, horietako bat bikoitza.
Okupazioa: garajerako sarbidea 6 hilabetez okupatzea (aldi baterako okupazioa).

BIGARRENA.- Erabaki hau Nahitaezko Desjabetze Legearen 21. artikuluak esandako eran argitara ematea eta jakinaraztea, *Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean*, Udalaren ediktua-taulan eta hedapen handiena duen egunkarietako batean argitartuta. Horrez gain, ondasun horien titularrei banan-banan jakinarazi behar zaie.

Administrazio-bideari amaiera ematen dien ebazen honen kontra, hile bateko epean, berrazterketa-errekursoa sar daitze Udal Osoko bilkuraren aurrean, edo, iragarkia *Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean* ateratzen den egunaren biharamunetik aurrera, hile biko epean, zuzenean aurkaratu Donostiako administrazio-auzi Aretoaren aurrean.”

Mendicute jaunak hartu du hitza. Hasi da galdetzen ea hauxe izan behar den

Imgocair, S.L.
Takashi Inui
Estamapaciones metálicas EGÜI, SAU
Naturaleza catastral: Finca urbana
Referencia catastral: 4381129
Referencia registral:
Descripción: Garaje que consta de ocho plazas una de ellas doble.
Ocupación: Ocupación temporal del acceso al garaje durante 6 meses.

SEGUNDO. PROCEDER a la publicación y notificación del presente acuerdo en los términos señalados en el artículo 21 de la ley de expropiación forzosa, en el *Boletín Oficial de Gipuzkoa, en el tablón de edictos del Ayuntamiento* y en uno de los diarios de mayor circulación. Además habrá de notificarse individualmente a los titulares de dichos bienes.

Contra el precedente acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición ante el Pleno Municipal, en el plazo de un mes, o impugnarlo directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.”

Interviene el señor Mendicute quien comienza preguntando si esta va a ser la

funtzionalatzeko ohiko modua geratzen den agintaldiko urte eta erdian, osoko bilkurak ezin baitira e-mailaz deitu, oraingoan egin den bezala. Duela astebete, Hirigintza Batzordearen bileran ezagutu ziren gaur Bilkuraren aztertuko diren gaiak, eta bertan esan zen ezohiko batzar bat egongo zela, ustez ohikoa ordeztuko zuena; baina han ez zen inolaz ere aipatu gaur izango zela, eta hara non jaso zuen e-mail bat, non esaten zen batzar hau egingo zela, kontuan izan gabe jendearen iritzia edo batzuek agian ezingo zirela etorri lan-arazoengatik.

Haritzekoa da, Jardiñetako igogailuaren proiektua, hainbat urtetan atzeratzen ari dena, eta hamarkada bat baino gehiago daramana promesagai izaten (fotomuntaketen, hauteskunde-propagandan, prentsako aipamenetan, etab.), orain hainbesteko presarekin atera nahi izatea; eta haritzekoa, halaber, duela sei hilabete egin zen kontsulta hura, non Jardiñetako auzotarrei galdezen zitzaien ea zer nahiago zuten, igogailua Julian Etxeberriatik edo Muzategitik izatea; eta zer eta orain Errebalgo obra egiten duen empresari kontrataua deuseztatu egin behar zaiola; horrek, dudarik gabe, sarbidea baldintzatuko du.

Jarraitu du esaten bere Taldeak komentatzen zuanean Errebaleko obra

tónica de funcionamiento en el año y medio que queda de mandato, pues los plenos no pueden ser convocados por email como ha sido el caso, y que hace una semana estaba reunida la Comisión de Urbanismo en la que se conocieron los temas que vienen hoy a pleno y en la que se dijo que iba a haber un pleno extraordinario, que se suponía sería el que sustituyese al ordinario pero que en ningún caso se comentó que iba a ser hoy, encontrándose con un email anticipando que se iba a celebrar este pleno sin posibilidad de dar opiniones, e incluso sin que algunos puedan acudir por motivos laborales.

Sorprende, añade, que un proyecto que lleva tantos años de retraso, como es el del ascensor de Jardiñeta, sobre el que desde hace más de una década se está prometiendo, con fotomontajes, propaganda electoral, intervenciones en prensa, etc., venga con tantas prisas, como sorprende también aquella consulta que se hizo hace seis meses y por la que se preguntaba al vecindario de Jardiñeta si preferían que el ascensor fuera desde Julián Etxeberria o desde Muzategi, cuando resulta que ahora se va a rescindir el contrato con la empresa que hace la obra de Errebal, lo cual condiciona el acceso.

Prosigue afirmando que cuando su Grupo comentaba que la obra de Errebal se

atzeratzen ari zela gezurtitzat hartzen zituztela, eta orain, aldiz, kontratua deuseztatzen da eta esaten da arazoak aspalditik zetozela; hortaz, logikoena izango zen autotarrei ohartaraztea atzerapenak egon zitezkeela Muzategiko sarbidea aukeratuz gero.

Jarraitu du esaten uztailaren 26ko Osoko Bilkuraren aktaren arabera, alkateak hauxe aipatzen zuela: "Mogel eta Aldatzeren urbanizaziorako kreditu globalera jo da, zeren gerakinekin egin ahal izateko ez baitzen operatiboa izango bi hilabete pasatu arte, berekin dakarren tramatazioa dela-eta"; alegia, dirua izateko ezin zen itxaron urrira arte lizitazio-prozesua hasi behar zelako, eta abenduan, berriz, ondasunen desjabetzea onartzen dugu igogailua egikaritzeko; eta orduan ez da ezer ulertzen; badirudi hori dena egiten dela proiekta ez betetzeagatik sentitu daitekeen presiotik nola edo hala irteteko, baina planifikaziorik gabe; hortaz, epeak argitza nahiko lukete.

Aguirre andreak dio ados dagoela EAJ-PNVk egin duen kritikarekin eta bera absenitu egingo dela, uste duelako zerbitzua Itzioraino ailegatzea beharrezkoa dela; eta Obra sailera igorri duela dagoeneko aspaldiko bidea berreskuratzeko proposamen; izan ere, beste helburu bat da bidegorri bat egitea, beharrezkoa izango

estaba atrasando se les llamaba mentirosos, y ahora se rescinde el contrato y se dice que los problemas venían desde atrás, por lo que lo lógico hubiera sido advertir a los vecinos de posibles demoras, si se optara por el acceso por Muzategi.

Prosigue diciendo que según el acta del pleno del 26 de julio el Alcalde decía "se ha tirado del crédito global para la urbanización de Mogel y Aldatze porque para poder hacerlo con remanente hasta dentro de dos meses no sería operativo, por la tramitación que conlleva"; esto es, que no se podía esperar hasta octubre para tener el dinero porque había que iniciar el proceso de licitación y resulta que en diciembre aprobamos la expropiación de bienes para poder ejecutar el ascensor, con lo que no encaja nada y parece que lo que se hace es para salir al paso de la presión que se puede sentir por no ejecutar este proyecto, pero sin una planificación; con lo que les gustará que se aclarasen los plazos.

Afirma la señora Aguirre que ella comparte la crítica que ha hecho el PNV y que se va a abstener porque cree necesario el servicio de llegar a Itzio y que ya ha trasladado al departamento de Obras la recuperación del antiguo camino, siendo otro objetivo el dar lugar a un bidegorri y que sería necesario para el ro-

litzatekeelako hori gurpildun-aulkiak ibiltzeko Mirafloresetik Eibarko erdigunera.

Gaineratu du abstenitu egingo dela harik eta aipatu duen proiektu hori aurrera era-mango dutela bermatu arte.

Lamarain andreak hartu du hitza esanez bere Taldeak argi daukala udal honek duen erronketako bat, hirigintzaren ikus-pegitik, irisgarritasuna dela.

Gaineratu du 2018ko aurrekontuaren zirri-borroan partida bat dagoela Irisgarritasunaren Plana berrikusteko eta beste bi edo hiru igogailu gehiago eraikitzea ere aurreikusten dela.

Jarraitu du esaten diagnostiko eta Plan bat egin behar dela, eta ondorioz, lehen-tasunak ezarri; eta badirudiela eskailera mekanikoen bolada pasatu dela; agian, bere garaian hauteskunde-kontuengatik ezarri ziren, baina ikusi da ez direla egokiak irisgarritasun-arazo guztiak konpontzeko, alde batera utzita beren prezioa eta dituzten arriskuak.

Amaitu du esanez, agian, badela garaia eskailera mekanikoak igogailuekin ordez-tea planteatzeko etorkizunari begira.

daje de silla de ruedas para la unión de Milaflores con el centro de Eibar.

Añade que se abstendrá hasta que se le asegure que este proyecto que ha mencionado vaya a ir adelante.

Interviene la señora Lamarain quien afirma que su Grupo tiene claro que uno de los retos que tiene este ayuntamiento desde el punto de vista urbanístico es el de la accesibilidad.

Añade que en el borrador del presupuesto de 2018 hay una partida para revisar el Plan de Accesibilidad y que también se contempla la construcción de dos o tres ascensores más.

Prosigue diciendo que hay que hacer un diagnóstico y un Plan, y como consecuencia, marcar las prioridades, y que parece que la época de las escaleras mecánicas ha finalizado, pues igual en su momento se instalaron por motivos electorales, pero se ha visto que no son adecuadas para todos los problemas de accesibilidad, a parte de su precio y de los riesgos que ocasionan.

Finaliza afirmando que igual es la hora de plantear de cara al futuro ir sustituyendo escaleras mecánicas por ascensores.

Alkate jaunak dio egia dela hau ezohiko bilkura bat dela eta urgentziaz deitu dela, baina hori ez dela ohikoa izan agintaldiko bi urteetan eta geratzen denerako ere ez dela ohikoa izango.

Ohikoa zera da, gaineratu du, gobernu-taldeak egiten duen guztia EAJ-PNVri harrigarri egitea.

Esan du, halaber, EAJ-PNVren ordezkariek planteatutako kontu guztiak erantzun direla jada prozesuan zehar, eta berak eutsi egiten diela une bakoitzean eman-dako azalpen eta argudioei.

Gobernu-taldeak, jarraitu du, ez ditu lege-procedura guztiak kontrolatzen, baina bai borondatea, eta bere borondatea beti izan da proiektu honekin aurrera jarraitzea.

Amaitu du esaten, epeei dagokienez, erosketa-teknikariari eskatuko diola informazioa, bidezko irizten diolako teknikaria izatea informatzen duena; berak eginez gero, kontrako arma gisa hartuko litzateke-eta.

Mendicute jaunak dio arduratsua iruditzen zaiola alkatearen erantzuna exekuzio-epearri dagokionez, baina Obra Batzorde-buruak areto honetan bertan esan zuela uztailean egingo zela.

Kontua ez da kontrako arma gisa era-

Afirma el señor Alcalde que es verdad que es este un pleno extraordinario y que se ha convocado con urgencia, pero que esta no ha sido la práctica habitual en los dos años de legislatura y que tampoco que la va a convertir en práctica habitual para lo que resta.

Lo que sí es habitual, añade, es que todo lo que haga el equipo de gobierno sorprenda al PNV.

Afirma así mismo que todas las cuestiones planteadas por el representantes del PNV ya han sido contestadas en el momento procesal oportuno y que él mantiene las explicaciones y exposiciones que ha dado en cada momento.

El equipo de gobierno, continúa, no controla todos los procedimientos legales, aunque sí controla la voluntad, y su voluntad ha sido siempre la de seguir adelante en este proyecto.

Finaliza afirmando que en cuanto a los plazos, solicitará información al respecto al técnico de compras porque considera procedente que sea éste el que informe, ya que si lo hiciera él, se utilizaría como arma arrojadiza.

El señor Mendicute dice que le parece responsable la respuesta del Alcalde en cuanto al plazo de ejecución, pero que el Presidente de la Comisión de Obras en esta misma sala dijo que se haría en el mes de julio.

La cuestión no es utilizar como arma

biltzea, jarraitu du, kontua da urte asko direla auzotarrei agindu zitzaiela obra eginda egongo zela, eta ez dela horrela; eta ez direla kontrako arma gisa erabiltzen ari, baizik eta herritarak defendatzen, gauza bat agindu zitzaielako eta hura exijitzeko eskubidea dutelako.

Jarraitu du esaten hemerotekari begiratzen bazaio, 2009ko azaroaren 17an Diario Vascok jasotzen zuela Jardiñetako sarbidea erdigunetik egingo zela, hurrengo urtean martxan jarriko ziren proiektuen artean.

Alkate jaunak dioenez, jarraitu du Mendicutek, EAJ-PNVri harrigarria egiten zaio gobernu-taldearen lana eta kritikatu egiten du lan hori; baina, kontua da ez dagoela taldean lan egiteko borondaterik.

Jarraitu du Nelson Mandelaren aipu bat egiten: "Zure etsaiarekin bakea egin nahi baduzu, berarekin lan egin behar duzu; orduan zure lagun bihurtuko da" eta hemen ez da lagun moduan lan egiten ari eta errua ez da bakarrik EAJ-PNVrena izango; eta, agian, gobernu-taldeak berrikusi egin beharko du lan egiteko modua, erabakiak hartzeko modua, eta bilkurak eta bozeramale-batzordeak deitzeko modua.

Gaineratu du harritzeko dela gauza batzuk tramitatzeko presak —bere ustez presioaren ondorio direnak—, eta beste gai batzuk, aldiz, epe barruan eta modu egokian erregistratu direnak linboan ego-

arrojadiza, continúa, sino que es algo prometido a los vecinos desde hace muchos años, que no está hecho; y que no se trata de un arma arrojadiza sino de defender al ciudadano de lo que se le ha prometido y que tiene derecho a exigirlo.

Prosigue diciendo que si se mira la hemeroteca, se verá que el Diario Vasco de 17 de noviembre de 2009 recogía entre los proyectos que se tenía previsto poner en marcha el próximo año, es acceso a Jardines desde la zona centro.

El señor Alcalde, continúa, dice que al PNV le sorprende el trabajo del equipo de gobierno y que critica el trabajo del equipo de gobierno; pero es que lo que no hay, es una voluntad de trabajo en equipo.

Prosigue diciendo que Nelson Mandela decía "si quieres hacer la paz con tu enemigo tienes que trabajar con él; entonces se convertirá en tu compañero" y que lo que ocurre es que aquí no se está trabajando como compañeros y la culpa no será sólo del PNV, e igual el equipo de gobierno tiene que revisar la forma de trabajar, y de tomar decisiones, y de convocar plenos y junta de portavoces.

Añade que sorprende las prisas que hay para tramitar alguna cosas, que entiende obedecen a la presión, mientras que otros asuntos que se han registrado en tiempo y forma están en un limbo, y así,

tea, hala nola pasabideen edo ibien Ordenantza edo Udalbusaren prezioaren Ordenanza.

Baina gobernu-taldeari zerbaitek interesa sortzen badio, amaitu du, astearte baten aurkezten da, gero zubi bat dator, eta handik bueltan bilkura bat deitzen da berderatzi eta erdietarako; eta uste du prentsa-oharra idatzita egongo dela.

Alkate jaunak dio EAJ-PNVren prentsa-oharra bai egongo dela seguraski idatzia dagoeneko, eta berriro dio urgentziaz egin dutena ez dela ohikoena izaten, baina badirudi haietan pentsarazi nahi dutela ohiko kontu bat dela.

Gaineratu du Mendicute jaunak aipatutako Nelson Mandelaren hitzak erabiliz, "etsaia-rekin bakea egin nahi baduzu", horixe dela hain zuen EAJ-PNVren arazoa, etsaiak ikusten dituela eta ez aurkariak.

Agirre andreak dio —oraingo gaiari zuze-nean ez badagokio ere— gogorarazi behar dituela bete ez diren hainbat kontu, hala nola animalien Ordenanza, eta herritarren parte-hartzeari buruzko Ordenanza; biek ere urtebete daramatenak betetzeke.

Alkate jaunak dio, halaxe dela, ez da-

la Ordenanza de vados, o la Ordenanza del precio del Udalbus.

Pero cuando algo interesa al equipo de gobierno, concluye, se presenta un martes, luego hay un puente y a la vuelta se convoca un pleno para las nueve y media, y se supone que ya estará redactada la nota de prensa.

Afirma el señor Alcalde que seguro que la nota de prensa del PNV, sí está ya redactada, y que tiene que insistir en que lo que se ha hecho por vía de urgencia no es lo habitual, pero que parece que se quiere trasladar que es algo habitual.

Añade que parafraseando a Nelson Mandela que el señor Mendicute ha mencionado "si quieras hacer la paz con tu enemigo" que ese es el problema del PNV; que ve enemigos, no adversarios.

La señora Agirre dice que aunque es salirse del tema, tiene que recordar como incumplimientos la Ordenanza de animales, y la Ordenanza de participación ciudadana que están pendientes desde hace un año.

Afirma el señor Alcalde, que en efecto,

gokiola eskuartean duten gaiari.

Azkenik, irizpena bozketara eramanda onartu egin da: Aguirre andrea abstentitu egin da eta gainerako jaun-andre guztiekin aldeko bota eman dute.

2. ATALA

Arratebide 18ko eraikinerako arrapalaren proiektua egiteko, nahitaez hartu behar diren ondasunen eta eskubideen zerrendari behin betiko onesprena ematea.

Irizpen hau irakurri da:

“Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko urriaren 6an egindako bilkuran “Arratebide 18ko eraikinerako arrapalaren proiektua” onartzea erabaki zuen eta, aldi berean, hasierako onarpena eman zion proiektua gauzatzeko nahitaez hartu edo okupatu behar diren ondasunen eta eskubideen zerrendari, Nahitaezko Desjabetze Legearen 17. artikuluak eta lege horren Araudioko 16.ak ezarritakoak aplikatuta.

Aplikatu behar diren lege-xedapenek ezarritakoaren arabera, expedienteak bete du jendaurreko informazioaren izapidea. Horretarako, 2017ko urriaren 17ko 198. zenbakiko *Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean*

es salirse del tema.

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el voto favorable de los señores y señoras asistentes; excepto la abstención de la señora Aguirre.

PUNTO 2º

Aprobación definitiva de la relación de bienes y derechos de ocupación necesaria para la ejecución del “Proyecto de ejecución de rampa de acceso a edificio de Arrate Bide 18”.

Se da lectura al siguiente dictamen:

“La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada en fecha 6 de octubre de 2017, acordó aprobar el “Proyecto de ejecución de rampa de acceso a edificio de Arrate Bide 18” y aprobar inicialmente, en aplicación de lo dispuesto en el artículo 17 de la Ley de Expropiación Forzosa y 16 de su Reglamento, la relación de bienes y derechos de ocupación necesaria para la ejecución del proyecto.

De acuerdo con lo establecido en las disposiciones legales de aplicación, el expediente ha sido sometido al trámite de información pública, a cuyo fin se insertaron anuncios en el Boletín Oficial de

iragarkia argitaratu zen; baita egunkarietan ere, 2017ko urriaren 13ko *Berria* eta *El Correo* egunkarietan, alegia. Aldi berean, jakinarazpen pertsonala bidali zitzaien titular interesdun guztiei.

Jendaurreko informazioari dagokion izapidean, inork ez du alegaziorik aurkeztu espedientea aztertzeko eta bidezkoak irizten ziren alegazioak egiteko emandako epearen barruan.

Beraz, Udal Osoko bilkurak behin betiko onarpena eman diezaioke ondasun eta eskubideen zerrendari. Izan ere, Nahitaezko Desjabetze Araudiaren 3.4. artikuluak zehazten duen bezala, desjabetzailea Udala denean, Udal Osoko bilkurari edo Udalbatzarrari dagokio auzibidetik edo administrazio-bidetik errekurtsoa sar daki-keen desjabetze-alorreko erabakiak hartzea.

Zerrenda horren behin betiko onarpenaren erabakia *Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean* eta Iurralde honetan hedapen handiena duen egunkarietako batean eman behar da argitara. Horrez gain, desjabetze-prozeduran interesduntzat agertzen diren pertsona guztiei banan-banan bidali behar zaie jakinarazpena.

Ondasunen eta eskubideen zerrendari

Gipuzkoa nº 198 de 17 de octubre de 2017, y en prensa en los periódicos *Berria* y *El Correo* de fecha 13 de octubre de 2017. Simultáneamente, se han practicado notificaciones personales a los titulares interesados.

En el trámite de información pública, en el plazo concedido al efecto para examinar el expediente y deducir las alegaciones que se estimasen pertinentes, no se han presentado alegaciones.

En consecuencia, se puede proceder a la aprobación definitiva de la relación de los bienes y derechos por el Ayuntamiento Pleno (el art. 3.4 del Reglamento de Expropiación Forzosa determina que cuando expropie el Ayuntamiento, corresponde al Ayuntamiento en Pleno adoptar los acuerdos en materia de expropiación que tengan carácter de recurribles en vía administrativa o contenciosa.)

El acuerdo de aprobación definitiva de dicha relación habrá de publicarse en el *Boletín Oficial de Gipuzkoa* y en uno de los diarios de mayor circulación de la provincia. Además habrá de notificarse individualmente a cuantas personas aparezcan como interesadas en el procedimiento expropiatorio.

Una vez aprobada definitivamente la re-

behin betiko onesprena eman ondoren eta ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 178. artikuluaren arabera, Nahitaezko Desjabetze Legearen 52. artikuluak ondasunak eta eskubideak presaz okupatzeko deklarazioaren izapidea egiteko, udal-erabakia baino ez da beharko organo desjabetzalea Udala bera denean. Ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 46. artikuluaren arabera, ekainaren 30eko hirigintzaren eta lurzoruaren 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriak dakartzana, Alkateak hartuko du presaz okupatzeko deklarazioaren erabakia. Horretarako, kreditu-atxipena egin beharko da desjabetzko expedientea amaitzea aurreikusten den aurrekontuekitaldiaren kontura. Expedientean proiektuaren egikaritzak duen presari buruzko justifikazio-txostena azaltzen da, 52. artikuluaren procedura erabiltzea justifikatzen duena.

Espedienteari Hirigintza eta Obra Saileko lege-aholkulariaren txostena erantsita; expediente hau izapidetzean indarrean dagoen araudiko izapideak bete egin direla kontuan hartuta; Hirigintza eta Obra Lan Batzordeak, Alberto Albistegui, Ana Telleria, Maria Isabel Larrauri eta Jon Iraola jaun-andreen aldeko botoekin, eta Leire Abanzabalegi, Gorka Errasti, Josu Mendicute eta Eva Juez jaun-andreen abstencioekin, Udal Osoko bilkurari erabaki hau hartzeko proposamena egiten dio:

lación de bienes y derechos, y de acuerdo con el art. 178 de la Ley Vasca 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, en el supuesto de que el órgano expropiante fuera el Ayuntamiento, el trámite de declaración de urgente ocupación prevista en el art. 52 de la Ley de Expropiación Forzosa sólo requerirá acuerdo municipal. De conformidad con el art. 46 del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, el acuerdo de declaración de urgente ocupación lo adoptará el Alcalde. Para ello, deberá realizarse la retención de crédito con cargo al ejercicio en que se prevea la conclusión del expediente expropiatorio. En el expediente figura informe justificativo de la urgencia en la ejecución del proyecto que justifica la utilización del procedimiento del artículo 52.

Incorporado al expediente el informe del Asesor Jurídico, y considerando que en la tramitación de este expediente se han observado los trámites que se relacionan en la normativa vigente, la Comisión de Trabajo de Urbanismo y Obras con los votos a favor de D. Alberto Albistegui, D^a Ana Telleria, D^a María Isabel Larrauri, D. Jon Iraola Iriondo y las abstenciones de D^a Leire Abanzabalegi, d. Gorka Errasti, D. Josu Mendicute y D^a Eva Juez , propone al Pleno Municipal acuerde:

LEHENA.- Behin betiko ONESPENA EMATEA “Arratebide 18ko eraikinerako arrapalaren proiekta” egiteko nahitaez hartu behar diren ondasunen eta eskubideen zerrenda honi:

ARRATEBIDE 18KO ERAIKINERAKO
ARRAPALAREN PROIEKTUA EGITEKO
NAHITAEZ HARTU BEHAR DIREN ON-
DASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZE-
RRENDA.

PRIMERO: APROBAR con carácter definitivo la relación de bienes y derechos de ocupación necesaria para la ejecución de las obras del “Proyecto de ejecución de rampa de acceso a edificio de Arrate Bide 18” que se incluyen en la relación adjunta,

RELACION DE BIENES Y DERECHOS
DE NECESARIA OCUPACION PARA LA
EJECUCIÓN DEL PROYECTO DE
EJECUCIÓN DE RAMPA DE ACCESO
A SU EDIFICIO EN ARRATE BIDE 18

1 zk.ko PARTZELA.

Titularasuna: Hilario Unceta zenaren oinordekoak.

Katastroan duen izaera: hiri-finka:

Katastroaren erreferentzia: 4281241

Erregistroaren erreferentzia: Eibarko 1890. finka.

Deskripzioa: kokatuta dagoen lekuagatik Mekolaburu izena hartzen duen soroa; gaur egun, Arratebide hamazortzi zenbakia. Laurehun eta berrogei metro karratu ditu. Ekialdean, Arrajolako bidearekin egiten du muga; hegoaldean, Eibartik Izuarko errepidearekin zeinak bereizten duen finkaren gainontzeko zatitik, eta, hartatik bananduta geratzen da; mendebaldean, Santa Cruz markesaren lursailarekin da mugakide; eta, iparraldean gaztainadia eta txararekin egiten du muga, gaur egun

PARCELA Nº 1

Titularidad: Herederos de D. Hilario Unceta.

Naturaleza catastral: Finca urbana

Referencia catastral: 4281241

Referencia registral: finca 1890 de Eibar.

Descripción: Heredad llamada, por el punto en que se halla, de Mecolaburu, hoy Arrate bide numero dieciocho. Mide cuatrocientos cuarenta metros cuadrados; Linda por el Este con camino de Arrajola, por el Sur, con carretera de Eibar a Izua, que la separa del resto de la finca de la que se segregó; por el Oeste, con terreno del Marques de Santa Cruz; y por el Norte, con castaño y jaral, hoy heredad de los hermanos Bustinduy, anteriores de su padre Don Marcelino Bustinduy.

Bustinduy anaiena, lehen Marcelino Bustinduy aita zenarena izandakoa.

Okupazioa: angeluzuzen erako 81 m²-ko lursaila ezpondan, 28 metro luze eta 2,89 m zabal, Arratebide kalearen eta Arratebide 18 eraikinaren artean kokatua.

BIGARRENA.- Erabaki hau Nahitaezko Desjabetze Legearen 21. artikuluak esandako eran argitara ematea eta jakinaraztea, *Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean*, Udalearen ediktu-taulan eta hedapen handiena duen egunkarietako batean argitaratuta. Horrez gain, ondasun horien titularrei banan-banan jakinarazi behar zaie.

Administrazio-bideari amaiera ematen diion ebaZen honen kontra, hile bateko epean, berrazterketa-errekursoa sar dai-teke Udal Osoko bilkuraren aurrean, edo, iragarkia *Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean* ateratzen den egunaren biharamunetik aurrrera, hile biko epean, zuzenean aurkara-tu Donostiako administrazio-auzi Aretoaren aurrean.”

Aguirre andrea aretotik irten da interes pertsonala duelako tartean.

Mendicute jaunak hartu du hitza. Esan du hemen ez dagoela etsairik. Bere ustez,

duy.

Ocupación: Una terreno rectangular en talud de 81 m², de 28 m. de largo y una anchura media de 2,89 m. situado entre la calle Arrate Bide y el edificio de Arrate bide 18.

SEGUNDO. PROCEDER a la publicación y notificación del presente acuerdo en los términos señalados en el artículo 21 de la ley de expropiación forzosa, en el *Boletín Oficial de Gipuzkoa*, en el tablón de edictos del Ayuntamiento y en uno de los diarios de mayor circulación. Además habrá de notificarse individualmente a los titulares de dichos bienes.

Contra el precedente acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición ante el Pleno Municipal, en el plazo de un mes, o impugnarlo directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.”

La señora Aguirre abandona la sala por concurrir interés personal.

Toma la palabra el señor Mendicute, quien afirma que aquí no hay enemigos,

etsaiak ziren lagatzen ez zutenak beste batzuek konfrontazio demokratikoa egin ahal izatea; eta gainerakoak aurkariak dira, eta, bere ustez, errespetuz tratatzen dira; baina badira beste batzuk saiatu direnak bezazio pertsonalak egiten, komunikabideetan, eta baita bilkura honetan ere era guztietaoak akusazioak erabilita.

Gaineratu du bere Taldeak ere aldeko botoa emango diola bigarren puntu honi, baina aurreko puntuaren bezala, kezkatzeko dela betetzen ez diren promesez hitz egitea.

Gogoratzen du 2014. urtean komunikazio bat egin zitzaiela udal taldeei diruzaintza gerakinarekin egin beharreko proiektuak erabakitzeko eta EAJ-PNVk urgentziaz proposatu zuela Mekolatik Arratebidera lotzen dituen eskailerak txukuntzea; eta ezetz esan zitzaien, urte hartan bertan egin behar zelako esku-hartzea; baina 2017a amaitu da eta ez da ezer egin.

Badira hemerotekako beste artikulu batzuk, jarraitu du, eskailera mekanikoak eta igogailuak aginduz, eta ez dira inoiz egiten; eta bada ordua ez bakarrik hirugarreni beren pegoretara iristeko aukera emateko, baita ere Udalak dagokion partea egin dezan premian dagoen auzo oso batzen irisgarritasuna hobetzeko.

y que considera que enemigos eran los que no permitían que otros pudiesen confrontar democráticamente; pues los demás son adversarios, y que cree que aquí tratan con respeto, a diferencia de otros que sí han tratado de hacer vejaciones personales, en medios de comunicación, e incluso en este pleno con acusaciones de todo tipo.

Añade que su Grupo también apoya este segundo punto, pero que al igual que en el punto anterior les preocupa que se hable de promesas que no se cumplen.

Recuerda que en el año 2014 se giró una comunicación a los grupos municipales para decidir proyectos a ejecutar con el remanente de tesorería y que por parte del PNV se propuso de forma urgente adecentar las escaleras que unen el paseo desde la altura de Mekola hasta Arrate Bide, y que se dijo que no, ya que se iba a hacer la actuación ese mismo año; pero que está acabando 2017 y no se ha hecho nada.

Hay otros artículos de hemeroteca, sigue, con promesas de escaleras mecanizadas y ascensores y que nunca se hacen, y va siendo hora de no sólo posibilitar a terceros la accesibilidad a sus portales; sino de que el Ayuntamiento también haga la parte que le corresponde de mejora de la accesibilidad de todo un barrio que está necesitado.

Alkate jaunak dio ea Udalaren erantzukizuna ere baden lurren derrigorrezko lagapen bat egin behar duen jabetzak ezintasunagatik edo heriotzengatik arazo judizialak izatea; alkatearen erantzukizuna izango da hori ere.

Gaineratu du bera ere jakitun dela ez da goela etsairik, baizik eta aurkariak; baina Nelson Mandelaren esaldia erabili duena Mendicute jauna izan dela, ez bera.

Mendicute jaunak dio ez zaiola errua alkateari leporatzen; bere Taldeak exijitzen duena da norberak bere gain hartu duenaren erantzukizuna, zeren eta gobernua ateratzen denean komunikabideetan, esanez, Vildosolaren txaleta bota egin behar dela hurrengo udan, gero ez dago esaterik ezin dela egin; ezin da konpromisorik hartu gero esaten bada ezin dela bete; ezin zaie auzotarrei gauza bat agindu eta gero arazoak daudela hura betetzeko esan.

Eta horixe bera gertatu dela Jardiñetan; izan ere, auzotarrekin egiten diren bilerten, zerbait exijitzen denean aitzakiak jartzen dira.

Amaitzeko, TVEko *Al filo de lo imposible* saioaren kolaboratzaile den Ramón Portillo

Afirma el señor Alcalde que si se entiende que también es responsabilidad del Ayuntamiento el que la propiedad que tiene que hacer una cesión obligatoria de los terrenos tenga problemas judiciales por incapacidades o fallecimientos; será también esa responsabilidad del Alcalde. Añade que él es consciente de que no hay enemigos, sino adversarios; pero que el que ha utilizado la frase de Nelson Mandela ha sido el señor Mendicute, no él.

El señor Mendicute dice que no se culpa al Alcalde; sino que su Grupo exige la responsabilidad de lo que uno mismo ha asumido, porque cuando un gobierno decide salir en los medios de comunicación diciendo que el chalet de Vildosola se va a derribar el verano siguiente, luego no se puede decir que no se puede hacer, pues no se puede adquirir compromisos de algo que luego se dice que no se puede hacer; no se puede estar prometiendo una cosa al vecindario y luego ir a contárselas los problemas para ejecutarlo.

Y que esto mismo, prosigue, ha ocurrido en Jardiñeta; pues en las reuniones con los vecinos cuando se exige, se ponen excusas.

Afirma que va a finalizar con una cita de Ramón Portillo, colaborador del progra-

Illoren aipu bat egin nahi du: “Gailurretik gertu, beti daude hamaika aitzakia jaisteko, eta bat bakarra igotzeko”.

Alkate jaunak dio Mendicute jaunak aitzakia deritzela gobernu-taldeak esaten dituen gauza guztiei, eta haietako batzuk azalpenak izan daitezkeela.

Gaineratu du, erantzukizuna dela-eta, politikan, onerako zein txarrerako, lau urtez behin hartzen direla erantzukizunak, eta berak birritan hartu dituela bere gain, eta, beraz, herritarrak direla erabakitzenten dute-nak beraiek erantzule bihurtzea; eta herritarrek berek baloratuko dutela bakoitzak bere ekintzetan, kudeaketetan edo udal lanetako omisioetan duen erantzukizuna.

Azkenik, irizpena bozketara eramanda onartu egin da, jaun-andre guztiak aldeko botoa emanik.

Eta gainerantzeo gairik ez dagoenez, eta goizeko hamarrak eta bost minuto izanik, Alkate jaunak bilera altxatzen du, guzi honetaz, nik Idazkari Orokorrak fede ematen dudalarik.

ma “Al filo de lo imposible” de TVE: “cerca de la cima siempre hay mil excusas para bajar, y una sola para subir”.

Dice el señor Alcalde que el señor Mendicute llama excusas a todo lo que dice el equipo de gobierno, y que algunas pueden ser explicaciones.

Añade que en cuanto a la responsabilidad, en política, indica, lo bueno o lo malo es que cada cuatro años se asume responsabilidades de todo y que él lleva asumiendo responsabilidades en dos ocasiones y por tanto, es la ciudadanía la soberana de hacerles responsables de lo que hacen y la gente valorará la responsabilidad de cada uno en su acciones, gestiones, u omisiones en el trabajo municipal.

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el voto favorable de los señores y señoras asistentes.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las diez horas cinco minutos, el Sr. Alcalde levanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.